


## BALERDI BALERDI
GALTZEN IKASTEKO METODOA

Zenbait taldetatik zetozen musikari iruindarrek sortu zuten nafar rock talde beterano hau, 1990ean. Erresuma Batuan jatorria zuten *new wave* eta *mod* soinuen (The Jam, The Kinks, Elvis Costello...) nahiz Estatu Batuetako folk-rock taldeen (Neil Young, REM, The Smithereens...) eragina jaso, eta lortu zuten letra landu eta ironikoak uztartzea abesti fresko, trinko eta gitarra kutsukoekin. Laurogeita hamarreko hamarkadan hiru disko argitaratu zituen bandak: *Balerdi Balerdi* (1991), *Ez gara galdu* (1994) *eta Hobe behin gorri ezenez beti hori* (1997).

*Galtzen ikasteko metodoa* hamalau kantuz osaturiko power-pop gidaliburutzat har daiteke. Hasieratik taldean dauden Toño Muro eta Sergio Ibarrolari Berako Petti eta Anxel Iraola batu zaizkie, gitarra eta baxuan hurrenez hurren. Lan berrian nabarmena da gitarren indarra eta, ohi bezala, haien maisutasuna estilo-aniztasunerako.

**Fitxa artistikoa:** Toño Muro (ahotsa eta gitarra), Sergio Ibarrola 'Zara' (bateria), Juan Luis Pérez Mitxelena "Petti" (gitarra), Anxel Iraola (baxua).




## MAITE MENÉ
OINUTSIK IBILTZEA

Maite Mené Zaragozako kantautorea da, baina urte asko daramatza Nafarroan. Abestiak, gehienak euskaraz idatziak, sentimentalak eta zuzenak dira. Hamabi urterekin hasi zen gitarra jotzen, bere kasa, eta abeslari ibilbide luzea du. Beste kantautore batzuekin batera aritu zen *Con aroma de mujer* ikus-entzunezko ikuskizunean, *In memoriam: Miguel Hernández* kontzertuetan, eta musika eta poesia uztartzen dituen *Tejiendo Palabras* errezitaldian. Gero, konpositore-lanetan hasi zen; hain zuzen, orain dela 10 urte ekin zion bere abestiak konposatzeari (batzuk sarituak izan ziren 2008ko eta 2010eko Euskal Kantu Txapelketan).

*Oinutsik ibiltzea* bere lehen diskoa aurkeztuko du, berak sortutako 13 abestiz osatua, eta unean uneko kolaborazioak dituena hitzetan (Antonio Amuedo, Koldo Pla, Josu Penades) eta musikan (Xabier Zabala, Ander Martín, Mikel Markez).

**Fitxa artistikoa:** Maite Mené (gitarra eta ahotsa), Javi Martín (gitarra eta ahotsak), Txema Beriain (pianoa), Josu Zabala (perkusioa eta kaxoia), Oscar Muñoz (baxua), Orreaga Villanueva (biolina).




## AINTZINA
KOSINATIK KANBERALA

Aintzina euskal musika tradizionalaren eremuan jaio zen, helburu argi batekin: ezagutzera ematea argitaragabeko zenbait harribitxi, antzinako abesti narratiboak, eta aldi berean, txertatzea erritmo eta eskala herrikoietan oinarritutako instrumentuak.

Ibilbide luzeko lau musikarik osatzen dute taldea: Alan Griffin (Alboka), Juanjo Otxandorena (Alboka, Oreka Tx, Izotz), Arkaitz Miner (Arrabots, Ruper Ordorika, Tapia eta Leturia) eta Zigor Sagarna (Laket, Esne Beltza).

*Suitian* (2009) lehen albumaren ondoren, *Kosinatik kanberala* (2011) diskoak euskararen lurralde guztietako antzinako testu eta melodiak jasotzen ditu, Azkueren edo Aita Donostiaren kantutegietan bilduak eta beste garai batzuetako istorio herrikoiak kontatzen dituztenak.

**Fitxa artistikoa:** Zigor Sagarna (ahotsa, baxua, panderoa), Juanjo Otxandorena (bouzoukia, ahotsa) Arkaitz Miner (biolina, mandolina, zapateatua) eta Alan Griffin (haize-instrumentuak, musugitarrak) .




## BIDAIA
HITZA

Bidaia folk talde bat da, Mixel Ducau abeslari, instrumentu askoren jotzaile eta konpositore euskaldunak eta Caroline Phillips konpositore kaliforniarrak osatutakoa.

Mixel Ducau rockaren eta jazz garaikidearen mundutik dator, eta euskarazko rock mugimenduaren sorreran parte hartu zuen. Anje Duhalderekin batera Errobi rock progresiboko talde mitikoa osatu zuen, eta, gerora, hainbat musika proiektutan parte hartu izan du, besteak beste Zaldibobon. Caroline Phillipsek arte lirikoa eta piano klasikoa ikasi zituen lau urtez Parisen. Gero, jazzean hasi zen buru belarri, eta Parisen kontzertuak eskaintzen.

Amets Arzallus, Aitor Sarasua, Daniel Landart eta Xabier Amuriza olerkarien hitzekin 9 abesti gehi tema instrumental batekin osatua da "Hitza" beren laugarren lana. Bidaiaren marka dira, aldi honetan ere, tradizio ezberdinen (flamenkoa, Cajun, Magreb eta Karibeko musika) eta Euskal Herriaren arteko zubitxoak.

**Fitxa artistikoa:** Mixel Ducau (ahotsa, gitarra, albokak, banbuko klarinetea eta flautak), Caroline Phillips (ahotsa, zarrabetea), Matthieu Haramburu (baxua), Fred Faure (perkusioak).




## LURPEKARIAK

Free jazza eta sunpriñua? Artzai-abestiak eta inprobisazio librea?

Euskal musika tradizionalaren eta euskal pentsamoldearen elementuen laburpenean oinarritutako egiturak. Hirukote bikoitz horrek ahalbidetzen du testura eta soinu-espazio ederrak sortzea; inprobisazio kolektiboa, hainbat norabidetarantz doan musikarako bidea. Musika inprobisatua, erro sakonekoa eta hainbat artistaren eragina duena, hala nola Matana Roberts, Beñat Axiari, Steve Coleman, Mikel Laboa eta besterena.

Formazioa osatzen duten sei partaideak hainbat eszenatokietan, *jam session*etan nahiz kontserbatorioan egin dute topo urtetan zehar, jazz-a delarik arrazoia. Baina badute beraien artean alde batera utzi ezin den beste lotura bat; norberaren sustraia, hau da, euskal tradizioa.

**Fitxa artistikoa:** Ion Celestino (tronpeta), Nerea Erbiti (ahotsa), Ander García (kontrabaxua), Javier Callén (kontrabaxua), Daniel Lizarraga (bateria), Israel Tubilleja (bateria).




## ANJE DUHALDE
IBILEAN

Anje Duhalderen (Arrangoitze, Lapurdi) ibilbide musikala hertsiki lotuta dago euskal musikaren historiarekin; 70eko hamarkadaren bukaeran belaunaldi oso bat markatu zuen Errobi rock-folk taldearen sortzailea eta partaidea izan zen. 80ko hamarkadaren hasieran ekin zion bakarkako ibilbideari, zeina azken hamarkadetako euskal musikaren isla fidela izan baita.

Duhaldek gaitasuna izan du Estatu Batuetako folk, blues eta rocka eta euskal tradizioa uztartzeko, eta horrela ezinbestekoa izan da euskal folk eta rockaren garapena ulertzeko, kantu herrikoiaren eta rock-hizkuntzaren arteko zubi izan baita.

Bere ibilbide luzean zehar –lau hamarkada– sortutako abestiak joko ditu Erraldoien Txokoan, hala Errobiren abestiak nola azken estudio-lanak edo euskal folkaren klasikoak.

**Fitxa artistikoa:** Anje Duhalde (ahots nagusia, gitarra akustikoa, harmonika), Rémy Gachis (gitarra akustikoa eta elektrikoa), Txomin Duhalde (perkusioak eta saxofoia).




## IZARO
OM

Izaro Andres Mallabiko (Bizkaia) abeslari eta konpositore gaztea da, eta ibilbide musikal laburra badu ere, lortu du lekua euskal musikagintzan. Lokal txikietan hasi zen, eta ETBko "Izarrak Kalean" saioan parte hartu zuen. Interneten entzuleen onespena jaso zuen berak konposatutako *Paradise* eta *Honey* abestiekin, eta musika-eszenan ezagunagoa izaten hasi zen.

*Om* (2016) izeneko lehen diskoan –*crowfunding* bidez finantzatua da– berak egindako hamahiru abesti eskaintzen dizkigu, pop-folk kutsukoak eta euskaraz, ingelesez eta gaztelaniaz idatziak. Hitzak barne-barnekoak eta pertsonalak dira, maitasunaren nahiz maitasun ezaren ingurukoak, eta egilearen bizipenak biltzen dituzte.

Kontzertuak eman ditu Estatuko hainbat tokitan, bakarka edo bere bandarekin batera, eta hasierako talde gisa aritu da Lloyd Cole abeslari britainiarraren biran. Izaroren ahots leun eta pertsonalak *Om* diskoa aurkeztuko digu, sosegurik ezari gorazarrea, soinu malenkoniatsu eta soul ukituekin.

**Fitxa artistikoa:** Izaro (ahotsa, gitarra), Iker Lauroba (gitarra, pianoa), Ane Bastida (baxua), Oriol Flores (bateria).

DL NA 684-2014

**Mayo 18 – Junio 29**
Patio de los Gigantes
C/ Descalzos 72. 20:30

Entrada libre previa retirada de invitación

# KANTU ETA HITZA 2017
# CONCIERTOS DE PEQUEÑO FORMATO

ORGANIZA: Ayuntamiento de Pamplona / Iruñeko Udala

COLABORA: Gobierno de Navarra



MAYO 18 JUEVES

## BALERDI BALERDI
GALTZEN IKASTEKO METODOA
[Método para aprender a perder]

Veterano grupo navarro de rock surgido en 1990, de la mano de varios músicos pamploneses de distintas bandas. Influenciados tanto por los sonidos *new wave* y *mod* originarios del Reino Unido (The Jam, The Kinks, Elvis Costello) como por formaciones folk-rock estadounidenses (Neil Young, REM, The Smithereens), conjugan letras trabajadas con ironía con acordes frescos, compactos y guitarreros. En la decada de los noventa la banda editó tres discos: *Balerdi Balerdi* (1991), *Ez gara galdu* (1994), y *Hobe behin gorri ezenez beti hori* (1997).

*Galtzen ikasteko metodoa* se puede considerar como una guía *power-pop* formada por catorce canciones. A los integrantes del grupo desde sus inicios, Toño Muro y Sergio Ibarrola, se han sumado el beratarra Petti y Anxel Iraola, a la guitarra y al bajo respectivamente. En el nuevo trabajo resalta la fuerza de las guitarras, y, como en ellos es habitual, el tratamiento de la diversidad estilística.

**Ficha artística:** Toño Muro (voz y guitarra), Sergio Ibarrola 'Zara' (batería), Juan Luis Pérez Mitxelena "Petti" (guitarra), Anxel Iraola (bajo).



MAYO 25 JUEVES

## MAITE MENÉ
OINUTSIK IBILTZEA
[Andar descalza]

Maite Mené es una cantautora natural de Zaragoza aunque está afincada en Navarra desde hace muchos años. Sus canciones, escritas en su mayoría en euskera, son sentimentales y directas. Comenzó a tocar la guitarra con doce años de manera autodidacta. Atesora, además, una larga carrera como cantante. Junto con otros cantautores participó en el espectáculo audiovisual *Con aroma de mujer* y en los conciertos *In memoriam: Miguel Hernández* y en el recital *Tejiendo palabras*, que mezcla su música con poesía. Su faceta de compositora es más reciente. Hace unos 10 años empezó a componer sus propios temas, varios de ellos premiados en el Euskal Kantu Txapelketa de 2008 y 2010.

Presenta su primer disco, *Oinutsik ibiltzea*, 13 temas propios con colaboraciones puntuales en la letra (Antonio Amuedo, Koldo Pla, Josu Penades) y en la música (Xabier Zabala, Ander Martín, Mikel Markez).

**Ficha artística:** Maite Mené (guitarra y voz), Javi Martín (guitarra y voz), Txema Beriain (piano), Josu Zabala (percusión y cajón), Oscar Muñoz (bajo), Orreaga Villanueva (violín).



JUNIO 1 JUEVES

## AINTZINA
KOSINATIK KANBERALA
[De la cocina al dormitorio]

Aintzina nació en el ámbito de la música tradicional vasca con un objetivo claro: dar a conocer algunas perlas inéditas, canciones narrativas antiguas, y a la vez incorporar instrumentaciones nuevas basadas en ritmos y escalas populares.

El grupo está compuesto por cuatro músicos de larga trayectoria: Alan Griffin (Alboka), Juanjo Otxandorena (Alboka, Oreka Tx, Izotz), Arkaitz Miner (Arrabots, Ruper Ordorika, Tapia eta Leturia) y Zigor Sagarna (Laket, Esne beltza). *Kosinatik kanberala* (2011), su segundo album tras *Suitian* (2009), incluye melodías y textos antiguos de todos los territorios del euskera recopiladas en los cancioneros de Azkue o el Padre Donostia que nos cuentan historias populares de otras épocas.

**Ficha artística:** Zigor Sagarna (voz, bajo, pandero), Juanjo Otxandorena (bouzouki, voz), Arkaitz Miner (violín, mandolina, zapateado) y Alan Griffin (instrumentos de viento, guimbardas),



JUNIO 8 JUEVES

## BIDAIA
HITZA
[Palabra]

Bidaia es una formación integrada por el cantante, multi-instrumentista y compositor euskaldun Mixel Ducau y la cantante y compositora californiana Caroline Phillips.

Mixel Ducau procede del mundo del rock y del jazz contemporáneo y participó en la creación del movimiento rock en euskera. Formó junto a Anje Duhalde la mítica banda de rock progresivo Errobi y, posteriormente, ha participado en diferentes proyectos musicales como Zaldibobo. Caroline Phillips estudió arte lírico y piano clásico en París, para más tarde centrarse en el jazz y dar conciertos en la Metrópoli.

Este cuarto trabajo se compone de un tema instrumental y 9 canciones con letras de los poetas Amets Arzallus, Aitor Sarasua, Daniel Landart y Xabier Amuriza. También en esta ocasión es característico de Bidaia establecer puentes entre otras tradiciones (música flamenca, cajun, del Magreb y caribeña) y las propias de Euskal Herria.

**Ficha artística:** Mixel Ducau (voz, guitarra, albokas, clarinete de bambú, flautas), Caroline Phillips (voz, zanfoña), Matthieu Haramburu (bajo), Fred Faure (percusiones).



JUNIO 15 JUEVES

## LURPEKARIAK

¿Free-jazz y *sunpriñu*? ¿Canciones de pastores y libre improvisación?

Estructuras basadas en la síntesis de elementos de la música vasca tradicional y su pensamiento, este doble trío propicia la creación de ricas texturas y espacios sonoros. La improvisación colectiva da lugar a música que camina en varias direcciones... Música improvisada con profunda raíz, influida por artistas como Matana Roberts, Beñat Axiari, Steve Coleman yMikel Laboa.

Los seis integrantes del grupo han coincidido a lo largo de los años en el conservatorio y en numerosos escenarios y *jam sessions*, siempre al hilo del jazz. Pero también tienen otro nexo de unión que no podemos dejar a un lado: sus raíces, es decir, la tradición vasca.

**Ficha artística:** Ion Celestino (trompeta), Nerea Erbiti (voz), Ander García (contrabajo), Javier Callén (contrabajo), Daniel Lizarraga (batería), Israel Tubilleja (batería).



JUNIO 22 JUEVES

## ANJE DUHALDE
IBILEAN
[Caminando]

La trayectoria musical de Anje Duhalde (Arrangoitze, Lapurdi) está íntimamente ligada a la historia de la música vasca. Fundador y componente de Errobi, grupo de rock/folk que marcó a toda una generación a finales de los 70, inició a comienzos de los 80 una brillante carrera en solitario, fiel reflejo de la música en euskera de las últimas décadas.

Duhalde ha sabido aunar los sonidos del folk, blues y rock estadounidense y la tradición euskaldun, convirtiéndose en pieza esencial en la evolución del folk y el rock vasco, en un puente entre la canción popular y el lenguaje rock.

En el Patio de Gigantes desgranará un repertorio que incluye temas de sus ya cuatro décadas de carrera. Repasará temas de sus inicios con Errobi, de sus últimos trabajos de estudio y clásicos del folk euskaldun.

**Ficha artística:** Anje Duhalde (voz principal, guitarra acústica, armónica), Rémy Gachis (guitarra acústica eta eléctrico), Txomin Duhalde (percusión y saxofón).



JUNIO 29 JUEVES

## IZARO
OM

Izaro Andres es una joven cantante y compositora de Mallabia (Bizkaia) que a pesar de su corta carrera musical, ha conseguido hacerse un hueco en el panorama musical vasco. Comenzó en pequeños locales y participó en el concurso de ETB 'Izarrak kalean'. Con *Paradise* y *Honey*, dos composiciones propias, recibe el beneplácito del público en internet y comienza a ser más conocida en la escena musical.

Su primer trabajo, *Om* (2016), financiado mediante *crowfunding*, ofrece trece canciones propias con aires de pop folk escritas en euskera, inglés y castellano. Son letras íntimas y personales que hablan de amor y desamor y recogen las vivencias de la autora.

Ha ofrecido conciertos por todo el estado en solitario y junto a su banda y ha realizado una gira teloneando al cantante británico Lloyd Cole. La voz delicada y personal de Izaro nos presenta *Om*, un disco de sonidos melancólicos y toques soul que canta al desasosiego.

**Ficha artística:** Izaro (voz, guitarra), Iker Lauroba (guitarra, piano), Ane Bastida (bajo), Oriol Flores (batería).

LG NA 684-2014

# KANTU ETA HITZA 2017
# FORMATU TXIKIKO KONTZERTUAK

**Maiatzak 18 – Ekainak 29**
Erraldoien Txokoa
C/ Descalzos 72. 20:30

Sarrera doan gonbidapena aurretik hartuta

ANTOLATZAILEA:
Ayuntamiento de Pamplona
Iruñeko Udala

LAGUNTZAILEA:
Gobierno de Navarra